

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen idazkariak honako hau azaltzen du:


2002ko azaroaren 26an jaso zen Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkari-tan Altsasuko Camino Mendiluze Arregi alkate andreak azaroaren 26an bertan egindako eskaera (Altsasuko Udaleko 5075 irteera zenbakia daramana). Eskera horretan Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari *Altsasu* herri izenari buruzko iritzia eta txostena eskatzen zitzaion.

Onomastika batzordeak 2002ko azaroaren 28an Eibarko Portalea kultura etxean egindako bilkuran eskaera aztertu ondoren, Euskaltzaindiak *Altsasu* herri izenari buruz lehendik hartutako erabakiak berretsi zituen, hots, erdaraz *Altsasu* deitzen den herriaren euskarazko izena *Altsasu* dela eta herritarren izena *altsasuar*. Erabaki horiek 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n eta 1990eko *Nafarroako Herri Izendegia*-n eman ziren argitara.

Aldi berean, Onomastika batzordeak erabaki zuen Patxi Salaberri Zaratiegi batzordekide ikertzaileari izen honi buruzko txostena prestatzeko eska-tzea. Batzordeak 2003ko urtarrilaren 28an Euskaltzaindiaren Gasteizko orde-zkaritzan izan duen bilkuran onartu du idazki honi erantsirik doan Salaberri jaunaren txostena.

Gasteizen, 2003ko urtarrilaren 28an.

O.I.



Andres Iñigo Ariztegi,
batzordeburua



Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria